

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onartzea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean egon den arauzko epean, behin betiko onartuta geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Zalduondoko Udalak hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta ordainaraziko du ordenantza honen arabera, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenaren, 19.2.b) artikuluan eta zerga hau arautzen duen foru arauan aurreikusitakoarekin bat etorritz. Aplikatu beharreko tarifak eta ehunekoaren taula jasotzen dituen eranskina ordenantzaren osagai da.

Tributu hori zuzeneko zerga bat da.

2. artikulua

Ordenantza hau Zalduondoko udalerrri osoan aplikatzen da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Hiri lursailek zergaldian izan duten balio gehikuntza da zerga gaia, lur horien jabetza edozein tituluz eskualdatzen bada edo horien gainean jabetza mugatzen duen edozein gozatze eskubide erreal eratzten edo eskualdatzen bada.

III. Zergapetu gabeko kasuak

4. artikulua

1. Balio gehikuntzak zerga honen aplikazio eremutik kanpo egongo dira, ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako landakotzat hartzen diren lurrei dagozkienean.

2. Ondoko hauek ez dira egongo zergapean: ezkontideek ezkontza sozietateari egindako ondasun eta eskubide ekarpenak, hauen ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak, eta ezkontideei beren ondasun komunaren ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Xedapen bera aplikatuko zaie Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratuta dagoen izatezko bikote bateko kideek egiten dituzten ekarpenak, esleipenak eta eskualdaketak, aurreko paragrafoan aipatu diren kasu beretan.

Honako hauek ere ez daude zergaren kargapean: ezkontza baliogabetze, banantze edo dibortzio kasuetan edo izatezko bikotea amaitzean emandako epaiak betetzearen ondorioz ezkontideen artean eta Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kideen artean gertatzen diren ondasun higiezinaren

eskualdaketak, eta seme-alaben alde egiten direnak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edo ondare araubide ekonomikoa gorabehera, hurrenez hurren.

3. Zerga honen pean egongo da lurren balio gehikuntza, baldin eta txertatuta badaude ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako ezaugarri berezietako gisa sailkatuta dauden ondasun higiezinetan.

IV. Salbuespenak eta hobariak

5. artikulua

1. Zerga honetatik salbuetsita egongo dira ondoko egintza hauen ondorioz agerian gertatzen diren balio gehikuntzak:

Zortasun eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zergarenak, 4. artikuluko 1. idatz zatiko k) letran xedatutako salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunen eskualdaketak, ja-beek edo eskubide errealek titularrek frogatzen badute ondasun higiezin horiek kontserbatzeko, hobetzeko edo birgaitzeko lanak euren kargura egin dituztela.

2. Era berean, zerga honetatik salbuetsita egongo dira balio gehikuntzak, zerga ordaintzeko eginbeharra honako pertsona edo erakunde hauei dagokienean:

Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia, Estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

Zerga kobratzen duen udalerrria eta udalerrri horrek osatzen dituen edo haren osakide diren gainerako udal entitateak, bai eta harien zuzenbide publikoko entitateak ere, Estatuaren erakunde autonomoen pareko izaera dutenak.

Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.

Gizarte Segurantza, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratutakoak.

Administrazio emakiden titularrak, baldin eta emakida horiek eragindako lursailei berriro aplikatzea badago.

Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena onartuta duten pertsonak eta erakundeak.

Irabazteko xederik gabeko erakundeak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga erregimenari eta mezenasgoaren zerga pizgarriei buruzkoak, ezarritako moduan.

3. Hobariak

Zerga kuotan ehuneko 90eko hobaria aplikatuko da lurra heriotza dela kausa eta kosturik gabe eskualdatzen badira edo gozamen eskubide errealek eskualdatu edo eratzen badira, jabaria mugatuz, hauen alde: ondorengoak, adoptatuak, ezkontideak, edo izatezko bikotekideak –izatezko bikoteak Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratuta egon behar dute–, aurrekoak eta adoptatzaileak.

V. Subjektu pasiboak

6. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa:

Irabazteko xedearekin lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealek eratzen edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen duen edo dena delako

eskubide erreala eratzten nahiz eskualdatzen zaiona, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei buruzko Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundea.

Kostu bidez lurra eskualdatu edo, jabaria mugaturik, ondasunak edukitzeko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen direnean, lurra eskualdatzen dituen edo eskubide erreala eratzten nahiz eskualdatzen duena, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundea.

2. Aurreko idatz zatiko b) letran aipatzen diren kasuetan, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisiko bada, beraren ordezkotzat hartuko da lurra eskuratzen dituen edo eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaiona, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundea.

3. Ohiko etxebizitzaren hipoteka exekuzioaren ondorioz egiten diren lurren eskualdaketetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko da lurra eskuratzen dituen, dela pertsona fisiko edo juridikoa, dela otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko, Arabako zergei buruzkoak, 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen duen erakundea.

Aurreko paragrafoan jasotako kasuetan, ordezkotzat hartuko da zergadunari eskatu ordaindutako zerga betebeharraren zenbatekoa itzultzea.

Paragrafo horretan xedatutako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluko 8. paragrafoan jasotakoa.

4. Martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren, baliabiderik ez duten hipoteka zordunak babesteko presako neurrienaren, 2. artikuluko aplikazio eremuan jasotako zordunek egindako eskualdaketetan, xedapen horren eranskinaren 3. idatz zatian aurreikusitako bezala ohiko etxebizitza ordainean emateko orduan, higieztina eskuratzen duen erakundea zergadunaren ordezkotzat hartuko da, eta ordezkotzat ezin izango dio zergadunari eskatu ordaindutako zerga betebeharraren zenbatekoa.

Paragrafo horretan xedatutako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Foru Arauak 87. artikuluko 8. paragrafoan jasotakoa.

VI. Zerga oinarria

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria lurren balioaren gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez hogeitun urtean metatutakoa.

Zerga oinarria zehaztearen ondorioetarako, kontuan hartu behar da lursailak sortzapenaren unean daukan balioa, artikuluko honen bi paragrafoan xedatutakoarekin bat, eta eranskinean jasotako eskalaren ehunekoak.

2. Lurren sortzapen unean duten balioa kalkulatzeko erregela hauek aplikatuko dira:

Lurren eskualdaketetan, lursailak sortzapen egunean duten balioa une horretantxe ondasun higieztinaren gaineko zergarako ezarritako dagoen berbera izango da. Hala ere, babes publikoko etxebizitza araubidean dauden higieztinetako lurren balioa kalkulatzeko 0,2ko koefizientea aplikatuko da salmenta prezioari.

Jabetza mugatzen duten gozamen eskubide erreala eratzeko edo eskualdatzeko, artikuluko honen hirugarren paragrafoko urteko ehunekoak aurreko letran zehaztutako balioaren parteari gainean aplikatuko dira. Parte hori aipatutako eskubideen balioaren adinekoa izango da eta balio horren zenbatekoa Ondare Eskualdaketetan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarako ezarritako arauak aplikatuz zehaztuko da.

Eraikin edo lursail baten gainetik solairu bat edo gehiago altxatzeko, edo lur azpitik eraikitzeko eskubidearen sorreran edo eskualdaketetan —lurrazal eskubide erreala bat izan gabe ere—, artikuluko honen hirugarren paragrafoko urteko ehunekoak aplikatuko dira, hain zuzen ere,

aurreko a) letran zehaztutako balioaren partearen gainean, horixe baita eskualdaketaren eskrituran ezarritako proportzionaltasun moduluaren adinakoa, eta hori ezin bada, gorantz edo lur azpian eraikitzeko diren solairuen zabaleraren edo bolumenaren eta eraikitako zabalera osoaren edo bolumenaren arteko ehunekoak zehaztu ondoren aterako dena, solairuak eraiki ondoren.

Nahitaezko desjabetzetan, lurzoruaren balioespenaren zatiari ezarriko zaizkio artikuluko honen 3. paragrafoko urteko ehunekoak, bigarren paragrafo horren a) idatz zatian zehaztutako balioa txikiagoa izan ezean. Kasu horretan, balio hori hartuko da ontzat eta ez balioespenaren zatia.

3. Sortzapenaren uneko lursailaren balioari (aurreko bigarren paragrafoan xedatutakoak eraginda) eranskineko eskalan agertzen den urteen arabera ehunekoak aplikatuko zaio.

Hirugarren paragrafoan aipatutako ehunekoak zehazteko, arau hauek bete behar dira:

1^a. Zergak kargatutako eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza zehazteko kontuan hartuko da gehikuntza hori gertatu den urteetarako udalak ezartzen duen urteko ehunekoak.

2^a. Sortzapen unean luraren balioaren gainean aplikatu beharreko ehunekoak hauxe da: kasu bakoitzean aplikatu beharreko urteko ehunekoak bider balio gehikuntza gertatu den urte kopurua.

3^a. Eragiketa bakoitzari aplikatu beharreko urteko ehunekoak lehenengo araua betez zehazteko, eta bigarren araua betez urteko ehuneko hori zenbat bider biderkatu behar den zehazteko, balio gehikuntza azaldu behar den aldiko urte osoak hartuko dira kontuan, eta ez urte zatiak.

VII. Zerga kuota

8. artikulua

Zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz lortuko da zerga honen kuota osoa.

VIII. Zergaren sortzapena

9. artikulua

1. Zerga sortzen da:

Lurren jabetza eskualdatzen denean, kostubidez zein dohainik, bizien artean zein heriotzaren ondorioz: eskualdaketa egunean.

Jabaria mugatzen duen gozamen-eskubide erreal bat eratzen edo eskualdatzen denean: eraketa edo eskualdaketa gertatzen den egunean.

Aurrekoaren ondorioetarako, hauxe izango da eskualdaketa eguna:

Intervivos egintza edo kontratuen kasuan, agiri publikoa ematen denekoa; agiri pribatuen kasuan, horiek errolda publiko batean sartzen edo inskribatzen direnekoa edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela-eta ematen zaionekoa.

Heriotza dela eta gertatzen diren eskualdaketetan, kausatzailea hil den eguna.

2. Lursaila eskualdatzea edo gozatzeko eskubide erreala eratzea edo eskualdatzea ahalbidetu duen egintza edo kontratua auzitegiek edo administrazioek xedapen irmoz baliogabetu, deuseztatu edo bukaratzen badute, subjektu pasiboak ordaindutako zergaren zenbatekoa berreskuratu ahal izango du, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik ekartzen ez badio eta xedapen irmoa eman zenetik bost urteko epean egiten badu diru hori itzultzeko eskaera. Interesatuek Kode Zibilarren 1295 artikuluan aipatutako itzulketak elkarri egin behar dizkiotela justifikatu ezean, irabazteko asmorik badagoela uste izango da. Egintzak edo kontratuak kostu ondorioz izan ez arren, hutsalketa edo suntsiarazpena adierazten bada zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez dituelako bete, ez da inolako itzulketarik egin beharrik izango.

3. Alderdi kontratatzaileek adosten badute kontratua ondorerik gabe uztea, ez da itzuli beharko ordaindutako zerga, eta zergapeko egintza berriztat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa bai demandari amore ematea.

4. Tartean baldintzaren bat dagoen egintza edo kontratuetan, Kode Zibilean jasotako aginduen arabera egingo da kalifikazioa. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko baldintza bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga eskatu egingo da, baina, baldintza betetzen deanean, dirua itzuli egingo da, aurreko puntuko arauak dioenari jarraiki.

Testamentua egiteko ahalmena pertsona jakin bati utziz atzeratzen diren jaraunspenetan, ahalmena guztiz erabilitakoan edo ahalmena iraungitzeko gainerako kausaren bat agitzean sortuko da zerga.

5. Testamentua egiteko ahalmenean zerga honen menpe dauden jaraunspen ondasunak gozamenean emateko eskubidea norbaiti ematen bazaio, gozamen horren likidazio bikoitza egingo da, ahalmen horretaz baliatzen ez den bitartean: behin-behineko likidazio bat, ondorengotza zabaltzean sortuko dena, biziarteko gozamenaren arauari jarraituz, eta beste behin betiko batzuk, testamentu ahala erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauari jarraituz, kausatzailea hil zenez geroztik igaro den denborarengatik; behin-behineko likidazioan ordaindutakoa konturako sarreratzat joko da, eta bien arteko alde gozamenaren itzuliko zaio, haren aldekoa ateratzen bada. Aldi baterako gozamenarengatik egiten den behin betiko likidazio hori jaraunspenarekin batera egingo da, jaraunspen horiek testamentu ahalmenarengatik edo hura amaitzeagatik baldin badira jaraunspenak.

IX. Zergaren kudeaketa

10. artikulua

1. Subjektu pasiboek zerga aitortpena aurkeztu beharko diote udal administrazioari, udalak berak emandako eredu ofizialari jarraituz; eredu ofizial horretan zerga harremanaren elementuak eta likidazioa egiteko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datu guztiak egon beharko dute. Aitortpena aurkezteko egintza berean kuotaren ordainketa egin beharko da.

11. artikulua

Aitortpena aurkezteko eta ondorio duen kuota ordaintzeko epe hauek hartu beharko dira kontuan, zerga sortzen den egunetik kontatzen hasita:

Inter vivos egintzak direnean, epea 30 egun balioudunekoa izango da.

Heriotzaren ondoriozko egintzei buruzko aitortpenak, sei hileko epean; subjektu pasiboak eskatuz gero, epea beste sei hilabete luza daiteke.

12. artikulua

1. Aitortpenarekin batera, ezarpena eragin duten egintzak edo kontratuak zehazki azaltzen dituen agiri kauto bat aurkeztu behar da.

2. Aitortpenarekin batera, subjektu pasiboek ondorengo agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- a) Eskualdatzailearen eta eskuratzzaileen NANak edo IFZak.
- b) Ezarpena eragin duten egintzak edo kontratuak jasotzen dituen agiriaren kopia kautoa.
- c) Eskualdatzen diren higiezinaren katastroko erreferentzien ziurtagiria.

3. Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak, halaber, agiri bidez frogatu beharko dira.

13. artikulua

Zerga likidatzeko beharrezkotzat jotzen dituen bestelako agiriak hogeita hamar eguneko epean aurkezteko eskatu ahal izango die udal administrazioak interesdunei; interesdunak eskatuz gero, beste hamabost egunez luzatu daiteke epea. Egindako eskaerei epe horien barruan

erantzuten ez dietenek, dagozkien zergen alorreko arau hauste eta zehapenak izango dituzte, aipatutako agiriak aitorpena egiaztatzeko beharrezkoak diren neurrian. Baldin agiri horiek ez badira bitarteko hutsak baizik interesdunak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatzeko, errekerimenduari ez erantzuteak likidazioa egitea ekarriko du, kontuan hartu gabe gorabehera alegatu bai baina justifikatu gabeak.

14. artikulua

10. artikuluan xedatutakoa alde batera utzita, honakoek ere subjektu pasiboentzat jarritako epe beretan emango diote zerga gaiaren berri udal administrazioari:

Zerga ordenantza honetako 6.1. artikuluko a) letran adierazitako balizkoak bizien arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnean, dohaintza emaileak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duenak.

6.1. artikuluko b) letrako kasuetan, eskuratzailleak edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaionak.

15. artikulua

Era berean, hiruhileko naturalaren lehenengo hamabostaldian, notarioek aurreko hiruhileko naturalean baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea bidali beharko diote udal administrazioari. Zerrenda horretan, udalerrian zerga gaia gauzatu dela adierazten duten ekitaldi, egintza eta negozio juridikoak jasoko dira, azken borondateari loturikoak izan ezik. Halaber, epe horretan berorretan igorri beharko dute egitate, egintza edo negozio juridiko horiek jasota ageri diren dokumentu pribatuen zerrenda ere, sinadurak aintzatesteke edo legeztatzeke aurkeztu zaizkien dokumentuen zerrenda, alegia. Artikulu honetan ezarritakoak ez du eragozten Arabako zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharrak orokorra.

Notarioek Udalari igorritako zerrendan edo aurkibidean, ondasun higiezinaren katastroko erreferentzia adierazi behar dute, erreferentzia hori bat datorrenean eskualdatu nahi direnekin.

Notarioek, baimentzeko agiritan, berariaz ohartarazi beharko dizkiete bertaratuei interesdunek zergaren aitorpena aurkezteko duten epea eta aitorpenak ez aurkezteagatik dituzten erantzukizunak.

16. artikulua

1. Baldin eta udal administrazioak badaki zerga gaiak gauzatu direla eta horiek ez badira deklaratu, interesdunei aitorpen hori egiteko eskatuko die, 13. artikuluan ezarritako epeen barruan; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko lirarteke.

2. Udal administrazioak aipatutako errekerimenduak eginez gero ere, interesdunek dagozkien aitorpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea bideratuko da, eskueran dituzten datuez baliatuz, eta dagozkien likidazioa egingo da, ordaintzeko epeak eta bidezko errekurtsioak adierazita, hala badagokio; gainera, zerga alorreko arau hausterik balego eta bidezkoa balitz, dagozkion zehapenak ezarriko lirarteke.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ondarezko eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga onartzen duen Foru Arauak ezarritakoa kontuan hartuz eta 7. artikularen 2.b) idatz zatian adierazitakoaren ondorioetarako, honako hauek bete beharko dira:

Aldi baterako gozamenaren balioa, ondasunen balioen proportzionaltzat joko da, urtean ehuneko 2, gehienez ehuneko 70. Aldi baterako gozamenaren balioa zenbatzeko ez dira kontuan hartuko urtebete baino gutxiagoko denbora tartearak, eta urtebete baino gutxiagorako gozamena ondasunen balioen ehuneko 2kotzat zenbatuko da.

Biziarreko gozamenen balioa ondasunen balio osoaren ehuneko 70ekoa dela joko da, gozamenenak hogeita urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa izango da balioa, hain zuzen ere, ehuneko 1 gutxiago urte bakoitzeko. Gutxieneko muga, betiere, balio osoaren ehuneko 10ekoa izango da.

Beste pertsona juridiko baten alde ezarritako gozamenak 30 urtetik gora edo denbora epe mugagabe batez irauten badu, baldintza baliogabetzaileari lotutako jabetza osatu baten eskualdaketatzat joko da zergen aldetik.

Jabetza soilaren eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren artean kenketa eginez kalkulatu da. Aldi baterakoak diren biziarreko gozamenetan jabetza soil aurreko arauetatik balio gutxi ematen diona aplikatuz kalkulatu da.

Erabilera eta bizileku eskubideen benetako balioa, eskubide horien objektu diren ondasunen balioaren ehuneko 75ari, kasu kasu, aldi baterako edo biziarreko gozamenen balioztapenari buruzko arauak aplikatuz lortuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bateratuak –apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen– 350.1. artikularen b) modalitatean ezarritako zergaldia, edozein kasutan, 1989ko abenduaren 31n bukatuko da, hamar urteak bete ez badira ere. Ondorioz, egun horretan sortuko da modalitate honi dagokion sortzapena; une horretan egingo da dagokion likidazioa, gauden hamarkadan igaro diren urte kopururengatik dagokiona, hain zuzen. Aurrean aipatutako modalitatean erakunde batek egindako konturako ordainketa guztiak ordenantza honetako 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik sortutako azken likidaziotik kenduko dira.

ERANSKINA

Kuota osoa ateratzen da zerga oinarriari karga tasa aplikatuz.

Karga tasa: ehuneko 15

Urteko ehunekoen taula

Urtebetetik 5 urte arteko aldia ehuneko 2,60

10 urte arteko aldia ehuneko 2,30

15 urte arteko aldia ehuneko 2,20

20 urte arteko aldia ehuneko 2,20

Zalduondo, 2016ko urtarrilaren 18a

Alkatea

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE